

# Juncal Ballestín

## Ikerketarako Nazioarteko Beka

**ARTIUM  
MUSEOA**

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa  
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco  
Museum of Contemporary Art of the Basque Country

Artium Museoak, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak Juncal Ballestín Nazioarteko Ikerketa Bekaren laugarren ediziorako proposamenak eskatzeko deialdia egiten du. Museoak artearen orainarekin eta historiarekin duen konpromisoaren parte bat da, bai eta artistak eta teorialari feministak diziplinaren kontakizunetan zeharka bere jardun-eremuetara sartzeko duen misioaren parte ere, ikerketa sustatuz eta artearen arloan ezagutza feminista zabalduz. Joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan abian jarri zen ezagutzaren eremu espezifiko bat, emakume artistak Artearen Historiatik kanpo uzten dituen desberdintasunak agerian uzten dituena.

## **DEIALDIAREN OINARRIAK**

### **Lehena.**

#### **Deialdiaren xedea**

Deialde honen xedea ikerketa-proiektu bat hautatzea da, honako helburu hauek izango dituena:

- Arte feministaren historiografia garatzea, bai Euskal Herrian, bai naizoartean eta/edo
- Museoko programei eta Bildumari lotutako artisten eta pentsalarien ekoizpenak aztertzea.

### **Bigarrena.**

#### **Deialdi honetan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak**

2.1. Honako hauek dira deialdi honetan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak:

- a) Deialdi honetara edozein nazionalitateko ikertzaileak aurkeztu ahal izango dira, adin-mugarik gabe, nahiz banaka, nahiz hautagaitza bateratua aurkezten duen kolektibo baten kide gisa.
- b) Eskatzaileek bekaren iraunaldian garatzekoa izango den ikerketa-proiektu bat aurkeztu beharko dute. Proiektu horrek argitaratu gabea izan beharko du eta gauzatzeo fasean egon ahal izango da, edo bekaren iraunaldian amaitu. Proiektuak 30.000 karaktere izango ditu gehienez ere, eta ondoko puntu hauek

jasoko ditu: proposamenaren laburpena eta deskribapena, egikaritze-egutegia, gutxi gorabeherako aurrekontu banakatua eta ikerketaren bibliografia xehatua.

- c) Hala eskatuz gero, hautatutako ikertzaileek ikerketaren emaitzak jendaurrean aurkeztu beharko dituzte Artium Museoan, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoan.

2.2. Beka horiek lupertzeak ez dakar Arabako Artium Fundazioarekiko inolako lan-harremanik, eta ez du esan nahi bekadunak gero haren plantillan sartuko direnik.

2.3. Hautatutako proiektua museoan bertan garatu ahal izango da, baina baita kanpoan ere. Museoak ez ditu bere gain hartuko ikertzaileen egonaldiak eragindako gastuak. Hala ere, aurrekontuan Vitoria-Gasteizera egin beharreko bisita bat sartuko da, eta bisita horren data eta helburua Artium Museoarekin adostu beharko dira. Baldintza hori ez da nahitaezkoa izango Espainiako Estatutik edo Europako kontinentetik kanpo dauden pertsonentzat.

## **Hirugarrena**

### **Ikerketa-bekaren iraupena eta zenbatekoa**

3.1. Ikerketa garatzeko bideratutako gehieneko zenbatekoa 7.000 eurokoa da, eta honako hauek jaso beharko ditu: ikertzaile(ar)en ordainsariak, ikerketaren garapenak eragindako gastuak (bibliografia, dokumentazioa eta bestelako materialak), eta onuradun(ar)en bidaiak-gastuak, dietak eta egonaldiak.

Bekaren xede den lanak ondoz ondoko bederatzi hilabeteko iraupena izango du, bekadun(a)(e)k beka idatziz onartzen du(t)enetik kontaktzen hasita, hamaikagarren oinarrian adierazitakoari jarraituz.

## **Laugarrena**

### **Bekaren ordainketa**

Bekaren zenbatekoa, dagokion PFEZaren txikipena eginda, hiru zatitan ordainduko da:

- a) 3.500 euro, laguntza ematen denetik aurrera.

- b) 3.500 euro, lana eta aurreikusitako aldia amaitzean.

### **Bosgarrena**

#### **Aurrekontu-araubidea eta -egozpena**

Beka norgehiagoka-araubidearen bidez emango da, objektibotasunaren, gardentasunaren, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta publizitatearen printzipioen arabera.

Deialdi hau «Euskal Emakume Artisten Ikerketa eta Dokumentazio Zentroaren Juncal Ballestín Ikerketarako Nazioarteko Beka» izeneko aurrekontu-aplikazioaren kontura egotziko da, gehienez ere 7.000 euroko zenbatekoarekin.

### **Seigarrena**

#### **Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak**

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskabide-orria beteta.
- b) Pasaportearen edo nortasun-agiri nazionalaren kopia.
- c) Eskatzaile(ar)en profila egiaztatzen duen curriculum vitae, gehienez ere, espazio eta guzti, 1.600 karaktere dituen. Balorazio batzordeak aipatutako merezimenduak justifikatzen dituzten dokumentuen kopia eskatu ahal izango du.
- d) Aurretik egindako proiektu eta lanen txostena espazio eta guzti, gehienez ere 15.000 karakterekoa.
- e) Egin nahi den proiektuaren deskribapena, espazio eta guzti gehienez ere 30.000 karakterekoa, proposamenaren laburpena eta deskribapena, gauzate-egutegia, gutxi gorabeherako aurrekontua eta aurrekontu zehaztua (finantzaketa propioa izan dezaketen kontzeptuen xehetasunarekin) eta ikerketaren bibliografia xehatua barne.

## **Zazpigarrena**

### **Eskabideen aurkezpena eta epea**

Eskabideak, atxiki beharreko dokumentazioarekin batera, euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez bete ahal izango dira.

Dokumentazio guztia euskarri digitalean bidali beharko da (PDF formatuan eta gehienez ere 5MB dituela) helbide elektronikoa honetara: [ikerketa\\_investigacion@artium.eus](mailto:ikerketa_investigacion@artium.eus)

Eskabideak aurkezteko azken eguna 2025eko martxoaren 10a da.

Eskabideak behar bezala aurkezten ez badira edo deialdi honetan eskatutako daturen bat falta bada, interesdunei 10 eguneko epea emango zaie akatsa zuzentzeko edo eskatutako datuak aurkezteko. Adierazitako epean egiten ez bada, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, eta artxibatu egingo da beste izapiderik gabe

## **Zortzigarrena**

### **Eskabideen instrukzio- eta onarpen-organoa**

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, Artium Museoak izango du prozedura bideratzeko eskumena.

## **Bederatzigarrena**

### **Balorazio batzordea**

Balorazio batzorde bat eratuko da, aurkeztutako eskabideen azken ebaluazioa eta hautaketa egiteko eta beka emateko ebazpen-proposamenaren txostena egiteko.

Museoaren lantaldeko kide eta arloko profesional adituek osatuko dute Balorazio batzordea.

## **Hamargarrena**

### **Eskabideen balorazioa**

Balorazio batzordeak ebaluatuko ditu onartutako eskabideak, gehienez ere 10 punturekin, ondoko irizpide hauek kontuan hartuta:

- a) Garatu nahi den ikerketa-proiektuaren interesa, deialdi honen oinarrietan aurreikusitakoaren arabera. Gehienez ere, bost (5) puntuko balorazioa.
- b) Eskatzailearen lanbide-profila, deialdi honetako oinarrietan xedatutakoaren arabera, gehienez ere hiru (3) puntu. Hautagaia talde bat baldin bada, kide bakoitzaren lanbide-profilak lortutako balorazioen batez bestekoa izango da puntuazioa.
- c) Ikerketa Artium Museoaren Ikerketa eta Dokumentazio Zentroaren helburuetara egokitzea (ikus erantsitako PDFa). Gehienez ere, bi (2) puntu.

Deialdiaren ebazpena Artium Museoaren webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da, eta proiektua aurkezteko erabilitako helbide elektronikora erantzunez.

## **Hamaikagarrena**

### **Ikerketa-bekaren onuradunen betebeharrak**

- a) Beka onartu dela idatziz jakinaraztea, beka eman eta 15 eguneko epean.
- b) Bi hilean behin lanaren garapenari buruzko txostena bidaltzea, erabakitako programaren arabera.
- c) Aurreikusitako planean sor daitezkeen aldaketa guztien berri ematea.
- d) Egindako ikerketaren azken memoria aurkeztea. Memoriak ikerketaren emaitzak jaso beharko ditu, eta ikerketa-prozesuan sortutako zeinahi eranskin dokumental edo bestelako material entregatzea baloratuko da, hala nola podcastak, bideoak, elkarrizketak, argazkiak, etab. Azken memoria aurkezteko epea ilabetekoa izango da, beka amaitzen denetik hasita

- e) Beka honetarako eskabidea aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan ezarritako arauak erabat eta baldintzarik gabe onartzen direla.

### **Hamabigarrena** **Ikerketaren jabetza eta hedapena**

Euskal Herriko Arte Garaikideko Museoak beretzat gordetzen du ikerketaren emaitzak argitaratzeko eskubidea, betiere egiletzaren aitortzea bermatuz eta jabetza intelektualaren arloan indarrean dauden xedapenak errespetatuz.

Ikerketan oinarritutako ondorengo argitalpen eta aurkezpen guztietan honako hau aipatuko da: «Ikerketa hau Juncal Ballestín Nazioarteko Ikerketa Bekari esker egin ahal izan da».

### **Hamahirugarrena** **Laguntza itzultzea**

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira oinarri hauetako klausuletan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, eta baita Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan ezarritako kasuetan jasotakoak betetzen ez badira ere.

Diru-laguntza gisa jasotako zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira, eta horiek kobratzea Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera egingo da.

### **Hamalagarrena** **Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioan sor daitekeen zalantza oro Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, Artium Museoak ebatziko du.

### **Hamabosgarrena** **Publizitatea**

Deialdi hau Artium Museoaren webgunean argitaratuko da, eta

ahalik ta gehien zabalduko da gizarte-komunikabideen bidez.

## **Hamaseigarrena Erreklamazioak**

Deialdi hau eta horren ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan etamo duan.

## **Hamazazpigarrena Harremanetarako datuak**

Deialdi honekin lotutako kontsultak egiteko, interesdunek helbide elektronikoa honetara jo dezakete:

[ikerketa\\_investigacion@artium.eus](mailto:ikerketa_investigacion@artium.eus)



